



# Euskararen Nazioarteko Eguna 2008, Stanford

(International Euskara Day 2008, Stanford)

## ALKORTA IDIAKEZ, Itziar

Euskal Herriko Unibertsitatea  
Kalitate eta Ikasketa Berrikuntzako Errektoreordea  
Gipuzkoako Campusa  
Arriola, 2  
20018 Donostia

BIBLID [1137-1951 (2009), 18; 73-76]

Sarrera eguna: 2008.11.11  
Onarpen eguna: 2008.12.11

## 2

2008. urtean, Euskararen Nazioarteko Eguna zela eta, euskararen egoera sozio-juridikoari buruzko mintegia egin zen Stanford-eko Unibertsitatean (Estatu Batuetan). Mintegia Eusko Ikaskuntzak antolatu zuen, Gloria Totorikaguena irakaslearen eskutik. Eta mintegi hartan aurkeztu eta eztabaidatu ziren lanak, orain erreseinatzen den liburu honetan bildu ziren”

**Giltza-Hitzak:** Hizkuntz eskubideak. Euskara. Euskararen estatus legala. Euskararen estatus legalaren historia.

## E

En 2008, con motivo del Día Internacional del Euskara, se celebró un seminario sobre la situación socio-jurídica del euskara en la Universidad de Stanford (Estados Unidos). El seminario fue organizado por la Sociedad de Estudios Vascos, de la mano de la profesora Gloria Totorikaguena, y los trabajos presentados y tratados en dicho seminario son los que se recogen en este libro que se reseña.

**Palabras Clave:** Derechos lingüísticos, Euskara, Estatus legal de la lengua vasca, Historia del estatus legal del euskara.

## E

En 2008, à l'occasion de la Journée Internationale de l'Euskara, un séminaire sur la situation socio-juridique de l'euskara avait lieu à l'Université de Stanford (États-Unis), organisé par la Société d'Études Basques, de la main de Madame Gloria Totorikaguena, Professeur universitaire. Les travaux présentés et les thèmes abordés au cours de ce séminaire sont rassemblés dans la présente publication.

**Mots Clé :** Droits linguistiques. Euskara. Statut juridique de la langue basque. Histoire du statut juridique de l'euskara.





**The Legal Status of the Basque Language Today: One Language, Three Administrations, Seven Different Geographies and a Diaspora /** Gloria Totoricagüena, Iñigo Urrutia, eds. – 265 p. ; 24 cm. – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2008. – ISBN: 978-84-8419-164-3.

Liburuaren hitzaurrean Javier Retegui, Eusko Ikaskuntzako Presidenteak azaltzen duenez, Elkartea jaio zenez geroztik, 1918. urtean, Eusko Ikaskuntzak agerian utzi izan du beti euskararekiko ardua eta maitasuna. Elkartea sortzeko Oñatin egin zen Kongresuan, erabateko garrantzia eman zioten fundatzaileek garai hartan euskara babesteko eta sustatzeko beharrari. Beste erabaki batzuen artean, Kongresuaren aktetan agertzen denez, Euskaltzaindia sortzea izan zen kongresukideen lehen kezka.

Julio de Irujok zuzendutako *Revista Internacional de los Estudios Vascos (RIEV)* aldizkariak, orobat, euskara izan zuen hasierako garai hartan, aztergai nagusi; mundu zabaleko hizkuntzalariei euskara ikertzeko bitarteko egokia eskaintzea izan zelarik aldizkariaren sortzailearen egitasmo nagusietakoa. Euskaltzaindia sortu artean, 1907tik 1919ra, *RIEV*en hizkuntzari buruzko atalak bete zuen euskararen gaineko ikerketari zegokion hutsunea.

Euskararen gaineko ikerketaz gain, Eusko Ikaskuntzak hizkuntzaren sustapenerako ahalegin handia egin izan du bere historian zehar. Elkartearen historia egin zuen Idoia ESTORNÉS adierazi legez, “kontua ez zen hizkuntza operazio-mahaira eraman eta aztertzea soilik; jazarpenezko eta erdeinuzko politikak urtetan kendutako osasuna eta bizitza itzuli behar zitzaizkion euskarari”<sup>1</sup>. Euskara biziberritzeko ahalegin horren haritik, 1930. urtean egin zen Eusko Ikaskuntzen V. Kongresuan bideratu zen Euskararen Eguna. Euzkel Bazkunen Alkartasunaren eskutik, ekimenaren inguruan bildu ziren sei erakunde, guztiak ere euskararen sustapena xede zutenak eta hizkuntza Euskal Herrian zehar hedatu eta berreskuratzeko xede

zutelarik. Ekimen hark jarri zuen gerora Nazioarteko Euskararen Eguna izango zenaren lehen harria. Tartean Gerra Zibilaren gertakari latzek ekindako bidea bertan behera utzarazi bazuen ere, 1948. urtean Baionan egindako Kongresuan, berriz ere ekin zioten lanari, eta honako erabaki hau hartu zuten bildutakoek: “Une journée de la langue basque dans le monde entier sera célébrée une fois par an, le 3 décembre, jour de la fête de Saint-Francois Xavier, sous les auspices d’Eskualzaleen Biltzarra et d’Eusko Ikaskuntzen Lagunartea”.

Aipatu Euskararen Nazioarteko Egunean, abenduaren 3an, egin berri da hain zuzen ere 2008. urtean euskararen egoera sozio-juridikoari buruzko azterketa Stanford-eko Unibertsitatean, Estatu Batuetan. Mintegia Eusko Ikaskuntzak antolatu du, Gloria Totoricagüena irakaslearen eskutik. Eta, mintegi hartan aurkeztu eta eztabaidatu diren lanen bilduma da erreseinatzen ari garen liburu hau.

Gloria Totoricagüena eta Iñigo Urrutia, liburuaren arduradunen hitzetan, bilduma horren helburu nagusia euskararen egungo egoera juridikoaren ezagutza da. Espainiako eta Frantziako estatuak urtetan jaulki duten araudiaren ondorioak ikuspegi zabal batetik aztertu nahi izan dira. Euskal gizarteak anitzago eta pluralago bilakatzen ari den neurrian, euskarak erronka berriei egin behar die aurre. Lan honen azken zioa, beraz, erronka horiei aurre egiteko hizkuntz politika egokiaren ildoak argitzea izango litzateke.

Liburuaren lehen kapituluak, Michel Bastarache doktoreak (Canadako Auzitegi Gorenaren epaile izandakoak), Canadako Estatuan ukipenean bizi diren bi hizkuntzen gaineko araudiaren berri ematen digu. Haren lanak aditzera ematen du tradizio demokratiko garbidun Estatu konposatu batean aurrera eramanez diren hizkuntz politiken zailtasunak zein izan diren. Nahiz eta Canadako egoera ez den Euskal Herriarena bezalakoa, interesgarria da beti haiengandik jaso dezakegun eskarmentuaren berri izatea. Zaila izanik ere euskararen egoeraren pareko kasuak aurkitzea, hizkuntza gutxitu bakoitzak bizi duen egoera sozio-juridikoak desberdinak baitira, interesgarria da aipatu azterketa konparatua egitea, batez ere, Canadak bere hizkuntza politika, giza eskubideen ikuspegitik lerratu duelako.

Bigarren atalean, Gloria Totoricagüena doktoreak (Basque Global Initiatives-eko Zuzendariak) euskal diasporan hizkuntza propioak bizi duen egoeraren berri ematen digu.

1. ESTORNÉS ZUBIZARRETA, I. *La Sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko Ikaskuntza a la Cultura Vasca (1918-1936)*, El-SEV, Donostia, 1983; 173 or.

Zortzigarren lurralde esan izan zaion horretan, hoguei eta bi Estatutan bizi diren komunitateak barne biltzen dira. Totoricagüena doktorearen lanean frogatzen da euskara funtsezko elementu izan dela euskal identitate eta nortasuna gordetzeko migrazioaren osteko gizaldietan, nahiz eta aldeko hizkuntza politikaren mesederik gabe egin behar izan den transmisio hori talde gehientsuenetan. Urte gutxi dira Euskal Herriko, eta batez ere, Euskal Autonomia Erkidegoko agintariek munduan zehar euskararen erabilera mantentzeko programak sortu dituztela, zeinen artean nabarmen daitezkeen hizkuntza ikasteko eta ikertzeko ahaleginak. Edonola ere, Gloria Totoricagüenak berak azpimarratzen duen legez, komunitate txiki horietan euskara biziko bada, hiztunek bere egiten duten ahalegin handiari esker izango da.

Nazioarteko legedian jasotzen diren hizkuntz eskubideen azalpena eta kritika Eva Pons doktorearen esku geratzen da (Bartzelonako Konstituzio Zuzenbideko irakaslea da bera). Estatu gabeko taldeen hizkuntz eskubideak bi modutara babestu izan ditu nazioarteko araudiak Eva Ponsen lanetik eratortzen denez, hizkuntz minorizatuen eskubide kolektiboak eta indibidualak aitortzea izan da legeria hauen ekarri nagusia. Batez ere, bazterkeria gaitzestearen bidetik baliarazi izan ahal dira hizkuntz eskubide horiek. Edonola ere, Eva Pons-ek berak aitortzen duenez, gutxiengoaren babes moduak nahiko ahulak izan dira eta izaten jarraitzen dute nazioarteko itun eta hitzarmenetan. Hala ere, urte batzuk badira Europako Kontseiluak erregioen hizkuntza minorizatuen aldeko ituna baliarazi duela, Europa osorako ukipenean dauden hizkuntza gutxituen babeserako standarrak ezarri. Nazioarteko erakunde horrek berak abiarazi dituen bitarteko horiek bereziki interesgarri izan daitezke Nafarroaren eta Iparraldeko egoera hobetzeko.

Europar Batasunaren ondorioak hizkuntza politiketan bitarikoak izan dira, Antoni Milian i Massana doktorearen ustez (Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko irakaslea). Alde batetik, Estatuetak hizkuntza gutxituen erabilera mugatu izan duten politikak eta erabakiak hartu dira, nahiz eta hizkuntza ez ofizial guztiekin ez den berdin jokatu, hor ere, mailak egon baitira; eta, bestetik, komunitate barruko zirkulazio askatasunari dagokionez, Estatu osokoak ez diren hizkuntzekiko desabantailak nabarmenak ei dira.

Iñaki Lasagabaster doktoreak (Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea) Espainiako eta Frantziako Konstituzioetan hizkuntz eskubideek izan duten lekua aipatzen du. Bien arteko aldea nabarmena dela azpimarratzen du bere atalean, izan ere, Espainiako 1978ko Konstituzioak Autonomia Erkidegoetako Estatutuei ofizialkidetza aitortzeko aukera ematen dien bitartean,

Frantzian, Errepublikaren uniformetasunaren printzipioaren izenean, euskararen erabilera eta sustapenaren babesa ezerezean geratzen baita, nahiz eta, berriki, V. Errepublikaren Konstituzioak indar sinbolikoa besterik ez duen hizkuntz gutxituen aldeko deklarazio bat jaso duen. Espainiako kasuari dagokionez, ezin izan daiteke ofizialtasuna aitortzen zaien hizkuntza guztiek trataera juridiko bera jasotzen dutenik; izan ere, gazteleraren ezagutza eta erabilera ezinbestekoa dela esaten den bitartean, bigarren hizkerarena, euskararena kasu, hautazkoagoa dela garbi geratzen da legeetan. Iñaki Lasagabasterren ustez Euskararen ofizialtasun ezaren adibide argi bat botere judizialaren barruan gure hizkuntzak duen eskakizun maila urria izan daiteke. Edonola ere, liburuaren atal honetan faltan hartzen da Konstituzio Auzitegiak hizkuntz eskubideei buruz jaulki duen jurisprudenziaren azterketa bat. Hori ere Konstituzio mailako araudiaren barruan sartzen baita eskuarki.

Seigarren atalean, Juan Cobarrubias (Seton Hall Universityko doktorea), euskararen hizkuntza politiken koordinazioan eskarmentu sakona duenak, normalizazio prozesuaren nondik norakoak azaltzen dizkigu. Hizkuntza planen ezarpenerako politikan urte askotan aritu ostean, Juan Cobarrubias dio argi bereizi behar direla hizkuntza normalizazioari dagozkion auziak eta normalizazio politikoari buruzkoak.

Euskal Autonomia Erkidegoak garatutako hizkuntza araudiaren azterketa Iñigo Urrutia (Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea) eta Xabier Irujo (Nevadako Unibertsitateko irakaslea) doktoreei dagokie. Bi autore hauek frogatzen dute hizkuntz ofizial delakoaren aitortza izanik ere, ukipenean dauden hizkuntza bien estatus juridikoa ez dela berdina Erkidego horretan. Estatutua onartu zenetik hogeita bost urte igaro diren honetan, bada garaia, euskararen erabilera sustatuko duten integrazio politikei leku egingo dieten arauak sustatzen hasteko.

Nafarroako Foru Komunitatearen hizkuntza mailako araudiaren azterketa aurreko bi autoreen, Xabier Irujo eta Iñigo Urrutiaren, esku geratu da halaber. Erkidego horretako Vasconcearen Legearen ondorioz, hizkuntz eskubideen aitortza lurraldeen arabera da bertan. Legeak hiru zonalde bereizten ditu non hiztunen eskubideak maila desberdinetan aitortzen diren. Azterketa lan horren kariaz, argi geratzen da Nafarroako hizkuntza politiken ondorioak euskararen erabilerarekiko kaltegarriak izan direla, eta behin baino gehiagotan, legeak aurreikusitako xedapenak ez direla praktikara eraman, *lingua navarrorum* delako hiztunen eskubideak urratuz.

Iparraldeko egoerak erabateko haultatsuna eta hizkuntz politika falta erakusten du.

Liburuaren bederatzigarren atalean, Francis Jaureguiberry doktoreak (Paueko Unibertsitatea) Iparraldeko euskararen egoera juridikoaren begitantze sakona egiten du, non nabarmen azaltzen den Frantziako Errepublikaren ezintasunak noraino heltzen diren hizkuntza gutxituen babesa eta sustapena eta hiztuenen hizkuntz eskubideak indarreratzeko orduan. Francis Jauregiberry irakasleak aldarrikatzen du Estatuko beste hizkuntz gutxituekin bat eginik hizkuntz eskubideak bermatzeko oinarritzko arauak sortu beharra dagoela, demokraziaren zeregin nagusi bezala, eta ez, soilik, Europa barruko hizkuntza eta kulturen aberastasunaren adierazgarri sinboliko huts bezala.

Azkenik, Xabier Irujo eta Iñigo Urrutiak gibeledoko atala osatzen dute Euskal Herriko hizkuntza politika askotarikoen atzean dauden arauen arteko alderatzearekin. Batzuen eta besteen arteko aldeak nabarmenduz gain, autore biek aldarrikatzen dute, Euskal Herriak, nazio den heinean, hizkuntz politika bateratu eta integratzaile bakar eta eraginkorra izateko duen eskubidea.

